

Eskola kirola - 2025-2026eko lehiaketa araudia

11KO FUTBOLA

HAURRAK (MUTILAK/MISTOA)

ARAUTEGIAREN LABURPENA ETA ARAUDIA

1. JOKALEKUA

Jokalekua angeluzuzena izango da, 90 eta 120 metro bitarteko luzerakoa, eta 45 eta 90 metro bitarteko zabalerakoa.

Hura mugatzen duten lerroak, luzetara, alboko marrak dira eta, zabaletara, ateko marrak (1,50 metro alboko eta hondoko marretatik hesira).

Penalti area 39,32 metroko luzera eta 16,5 metroko zabalera duen eremu angeluzuzena da, ateko marratik neurtuta. Hamaika (11) metrora eta arearen erdian penalti puntua markatuta dago, ikusteko moduan, eta puntu horretatik jaurtitzen da penaltia. Penalti puntua erdiko puntutzat hartuta, penalti area bakoitzaren kanpoko alderantz 9,15 metroko erradioa duen zirkunferentzia arku bat marraztuko da.

2. BALOIA

Haurren kategorian, baloiaren zirkunferentzia 62 eta 66 cm bitartekoa izango da, eta haren pisua, 340 eta 390 g bitartekoa. Materiala larrua izango da (f4 mod.)

3. ATEA

Ateen neurriak hauek izango dira: 7,32 metroko luzera eta 2,44 metroko garaiera.

4. BALOIA ATEZAINARI EMATEA

Jokalari batek baloia bere atezainari eman eta hark arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori jaurtiketa libre ez-zuzenarekin zigortuko da.

5. JOKOZ KANPO

- a) Jokalari bat jokoz kanpo dago baldin eta talde aurkariaren ateko marratik gutxienez aurkari bat baino hurbilago badago. Hala ere, ondoko bi kasu hauetan bakarrik zigortuko da: bere taldekideetako bat baloia jokatzen ari den bitartean, jokalariai berak

- jokoan esku hartu edo aurkari bat oztopatzen badu, edo



- bere posiziotik onura ateratzen saiatzen bada.
- b) Arbitroak ezin du jokalaria bat zigortu jokoan kanpo egoteagatik, honako kasu hauetan:
- posizio horretan egon baina joko aktiboan esku hartzen ez badu.
 - pilota zuzenean ateko saketik, korerreko saketik edo alboko saketik jasotzen baldin badu.
- c) Jokoz kanpo egotea jaurtiketa libre ez-zuzen batekin zigortuko da. Talde aurkariak falta egin den tokitik jaurtiko du, arau haustea aurkako arean egin ezean. Kasu horretan, jaurtiketa libre area horretako edozein tokitatik jaurti daiteke.

6. PARTIDEN IRAUPENA

Haurren mailan, partidaren iraupena hirurogeita hamar (70) minutukoa izango da, hogeita hamabost (35) minutuko bi zatitan banatuta. Zati baten eta bestearen artean hamabost (15) minutuko atsedena egingo da.

7. MARKAGAILUA

Partidan aldea 8 golekoa edo gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeak hala eskatzen badu, eta aktan ez da agertuko adierazitakoa baino alde handiagorik, partida amaitutzat eman nahiz aurrera jarraitu.

8. TXARTEL HORIA

Txartel horiak jokalaria bi (2) minutuz kanporatzea ekarriko du. Arbitroak txartel horia erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalariai:

- jokoaren arauak etengabe hausten baditu,
- arbitroaren erabakiak hitzez edo keinuz onartzen ez baditu,
- jokaera desegokia izaten badu,
- joko garbiaren izpirituaren aurka jokatzeko badu.

Arau horrek atezainari eta zelaian dauden gainerako jokalariei eragiten die. Atezainari ohartarazpena egiten zaionean, zelaian dagoen kide bat jarriko da atezain, kanporatze denbora amaitu arte. Kanporatutako atezaina joko zelaira itzul daitekeenean, baloi gelditura egingo da atezain eginkizunak betetzen geratu den jokalariairekin egin beharreko aldaketa.

9. TXARTEL GORRIA EDO BI HORI

Txartel gorriak edo bi horiak jokalaria bost (5) minutuz kanporatzea ekarriko du, bai eta, denbora hori igarotakoan, beste jokalaria batez ordeztzea ere, eta beste aldaketa bat bezala zenbatuko da. Txartel gorria partidako azken 10 minutuetan erakusten bazaio, ezin



izango da beste jokalaririk atera haren ordez. Arbitroak txartel gorria erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalaria:

- gol aukera nabarmena edo azken jokalaria izanik
- indarkeriaz edo zakarki jokatzeko badu,
- asmo iraingarritz edo gordinkeriaz jokatzeko badu,

Bi txartel horiek ez dute eragingo partida eteterik, baina txartel gorritzat joko da jokalaria partidatik kanporatzeko. Arau horrek atezainari ere eragiten dio.

10. JOKALARIAK

Taldeak MUTILEN HAUR kategorian inskribatzeko, bai errendimenduari dagokionez, bai parte hartzeari dagokionez, gutxienez 14 jokalaria eta gehienez 25 beharko dira.

Zelaian atezain batek eta 10 jokalarik bakarrik joka dezakete aldi berean.

Partida hasteko, gutxienez 7 jokalarik egon beharko dute jokalekuan. Inskribatutako guztiak atezain bezala nahiz zelaiko jokalaria bezala aritu daitezke, baina atezainaren elastikoa bere taldekideena ez bezalako kolorekoa izan beharko da.

11. EMAITZEI BEGIRAKO DEIALDIAK

1. Ezin izango da kirolarien deialdirik egin emaitzei begira. Honako arrazoi hauetakoren batengatik lehiaketa jardunaldi batean parte hartzeko kirolari bat baztertzeko bada, deialdi hori emaitzei begira egindakoa izango da, arrazoi hauetakoren bat tarteko egon ez bada:

- Lesioa edo gaixotasuna.
- Erakundearen diziplina neurria.
- Eskola kirolaren diziplina araubidean oinarritutako zehapena.
- Eskola umearen ezintasuna, familiak erabakita edo ezinbesteko beste arrazoi batzuegatik.
- Izena eman duten ikasleen kopurua gehienez deitu daitezkeen kirolarien kopurua baino handiagoa denean. Kasu horretan, jardunaldietara joan gabe geratzen diren kirolariak modu ekitatiboan banatu beharko dira, izena eman duten kirolari guztiek antzeko partida kopuruan parte har dezaten.

2. Emaitzei begira egindako deialdiak hautematen diren entitateetako taldeek:

- Galdutzat joko dira partidak zeinetan ez-betetzea egin baita.
- Ezin izango dute lehiaketako lehenengo postua lortu.
- Ezin izango dute parte hartu hurrengo ikasturteko errendimendu ibilbideko lehiaketetan.
- Deskalkifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.



12. JOKALARIZ ALDATZEA

Kategoria guztietan, zazpi (7) aldaketa egin daitezke gehienez, baldin eta arbitroak baimendu eta pilota jokoan ez badago.

Aldaketak zelaiaren erdigunetik egingo dira eta ordeztutako jokalaria zelaitik atera beharko du bere ordeztutako duen jokalaria zelaiari sartu baino lehenago.

Arbitroak kanporatutako jokalaria ordeztu egin daiteke eta ezin dezake partida guztian berriro jokatu.

Atezainak bere lekua zelaiko beste edozein jokalarirekin alda dezake, baldin eta arbitroak horretarako baimena ematen badu.

Aktan jasotako jokari guztiek jokatu behar dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Jokari batek jokatu nahi ez badu, entrenatzaileak aldaketa eskatu eta jokalaria zelaitik atera beharko du, beste bat sartu gabe. Jokatu nahi izan ez duen jokalaria aipatutako azken 10 minutuetako edozein momentutan sar daiteke jokoan.

Aldaketa hauek egitea errazteko, arbitroak partidaren amaierarako hamar (10) minutu falta direnean ohartarazi beharko du; hala ere, entrenatzaile-hezitzaileek arbitroari ohartarazi beharko diote abisua jaso ezean.

13. ENTRENATZAILEA

Taldearekin inskribatutako entrenatzaile-hezitzaileak nahitaez egon beharko du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die zelaiaren albotik, eta jokalariz aldatzeko eta hutsarteak eskatzeko ardura du. Jokalarien, ordeztuak eta beraiekin daudenen portaeraren erantzule ere bada.

Entrenatzaile-hezitzailea aurkezten ez bada, guraso arduradun bat egotea onartuko da, NANA aurkeztu ondoren, eta hura aktan jasoko da.

14. ESKOLA LIZENTZIAK AURKEZTEA

1. Parte hartzen duten talde guztiek eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko diote arbitro taldeari partida edo lehiaketa bakoitza hasi baino lehen (baliozkotua, euskarri elektronikoa edo digitalean nahiz euskarri fisikoan edo paperean), behar bezala baliozkotua eta argazki eguneratua duena.

2. Lizentziaren bat aurkezten ez bada, horren berri eman beharko da aktan edo txostenean, diziplina erantzukizunik dagoenez erabakitzeko. Nolanahi ere, proba jokatu egin beharko da, ezohiko inguruabarren bat gertatu ezean (hala bada, frogatu egin beharko da).



3. Areto futbola, 8ko futbola eta 11ko futbola modalitate bakartzat jotzen dira, eta eskola ume batek ezin du parte hartu haietako batean baino gehiagotan.

15. ARAUZ KONTRAKO JOKALARI ZERRENDA

Talde batek partida batean jokalaria bat sartzen badu arauz kontrako edo okerreko jokalaria zerrenda eginda, zehapen hauek izango ditu:

- a) Lehenengo arauz kontrako jokalaria zerrenda: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko du.
- b) Bigarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da eta sailkapen orokorrean hiru puntu kenduko zaizkio.
- c) Hirugarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Ez dago baimenduta kirolariak parte hartzea eskola kirolaren aplikazio informatikoan inskribatuta dauden erakunde bereko taldeetan ez behin-behinean ez betiko. Beraz, ez dago baimenduta partida jakin batzuetarako kirolariak kategoriaz igotzea.

Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

16. ARBITROAK

Arbitroek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Izena emateko unean hamasei urte, behintzat, izatea.
- b) Dagokion eskola lizentzia izatea.

17. LEHIAKETA MAILA

Haurren kategoriako taldeak bi kategoriatan inskribatuko dira, bata errendimendu kategoria da, eta, bestea, partaidetza kategoria.

Errendimenduan, itzuli bikoitzeko liga egingo da, eta hortik aterako dira errendimendu ibilbideko Euskadiko Eskolarteko Jokoetarako sailkatutakoak.

Partaidetzako bigarren fasetik -A taldean- partaidetza ibilbideko Euskadiko Eskolarteko Jokoetarako sailkatutakoak aterako dira.



18. GUTXIENeko JOKALARI KOPURUA

Areto futbola, 8ko futbola eta 11ko futbola modalitate bakartzat jotzen dira, eta eskola ume batek ezin du parte hartu haietako batean baino gehiagotan.

A) Eskola kirolariek adinez dagokienaren hurrengo behegoko kategorian parte hartzea.

1.- Adinez dagokienaren hurrengo behegoko kategorian parte hartu ahal izango dute eskakizun hauek betetzen dituzten eskola umeek:

a) Lehiaketa, lehenengo fasean, behintzat, partaidetza ibilbidekoa izatea.

b) Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaio izana.

c) Ikastetxeetako taldeen kasuan, pertsona hori ikastetxekoa izatea, eta irabazteko xederik gabeko erakundeen kasuan, kirolaria aurreko ikasturtean erakunde horretan egon izana.

d) Kirol erakundeak idatziz konpromisoa hartzea honako baldintza hauek betetzeko:

- Baimendutako kirolari bakoitzak jokatzen emandako denboren batura ezin daiteke izan partidaren iraupen osoaren ehuneko 50 baino gehiago.

- Goragoko kategoriako kirolariek talde berean parte hartzeko baimen bat baino gehiago izanez gero, kirolariek debekatuta izango dute aldi berean jokatzea.

2.- Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak, salbuespen gisa, artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, taldeak egiteko zailtasunak badaude modalitate/diziplina jakin batzuetan eta udalerrri edo kuadrilla jakin batzuetan, edo taldeetan desgaitasuna edo premia bereziak dituzten kirolariak badaude.

3.- Artikulu honetan aipatzen diren kirolariak dituzten taldeak partaidetza ibilbideko lehiaketetako sailkapenen azken faseetan edo lehenengo postuetan sartu ahal izango dira.

B) Eskola kirolariek adinez dagokienaren hurrengo goragoko kategorian parte hartzea

1. Ikasleek adinaren arabera dagokiena baino maila bat goragoko kategorian parte hartu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:

a) Norberaren kategoriako urteetako azkenekoan jaiotakoa izatea.

b) Kategoria txikiagoko pertsona inskribatuen kopurua ez izatea taldeko kideen ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa.

c) Adinez dagokiona baino goragoko kategorian parte hartzeko adingabearen legeko arduradunaren baimen idatzia izatea, jardun horrek berekin dakartzan arriskuen erantzukizuna bere gain hartuz

2. Kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak, salbuespen gisa, baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, kontuan hartuta udalerrri



jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak.

C) Talde mistoak (talde kiroletako araudietarako)

1.- Partaidetza ibilbideko lehiaketetan talde mistoek parte hartu ahal izango dute.

2.- Talde mistoentzat lehiaketa bat antolatu ezin den kasuetan, lehiaketa horiek nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, kideen genero gehiengoaren arabera.

3.- Partaidetza ibilbideko lehiaketen ondorioetarako:

- Mutilen taldeentzat joko da gehienez ere kirolari neska bat dagoen taldea.
- Talde misto gisa onartuko dira sexu bakoitzeko gutxienez bi partaidek osatutako taldeak, eta osaera horri denboraldi osoan eutsi beharko diote.

D) Kirolari transexualak

1.- Eskola ume transexualak, betiere, kirolaritzat hartuko dira, beren sexu edo genero identitatearen arabera; hau da, sentitzen duten sexuarekin edo generoarekin bat datorrenaren arabera.

2.- Ez dira zenbatuko ekipo mistoen ondorioetarako.

19. PARTIDEN EMAITZAK

Etxean jokatzen duen taldeak Arabako Futbol Federazioari idatziz jakinarazi beharko dio partidaren emaitza, lehiaketaren ondoko lehenengo egun baliioduneko 20:00ak baino lehen. Jakinarazpen hori bi modu hauetako batez egingo da: partidaren akta Federazioaren lokaletan aurkeztuta (Amadeo G. de Salazar plaza, 2 – 1.a, Gasteiz), edota akta faxez (tel. 945-280137) edo posta elektronikoko bidez (actas@faf-aff.eus) bidalita eta gero jatorrizko akta aurkeztuta. Etxeko taldeak emaitzaren berri ematen ez badu, talde hori honela zigortuko da:

- a) Lehenengo aldia: emaitza mantendu egingo da, baina etxeko taldeari puntu bat kenduko zaio sailkapen orokorrean.
- b) Bigarren aldia lehiaketa berean: hiru puntu kenduko dira sailkapen orokorrean eta partidaren emaitza mantendu egingo da.
- c) Hirugarren aldia lehiaketa berean: taldea deskalifikatu egingo da, eta izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Kasu horretan, deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokoretik ezabatuko dira.

20. PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Kirol lehiaketetan inskribatutako kirol erakundeek programatutako lehiaketa guztietan parte hartu beharko dute, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Partida batera joaten ez bada, absentzia federazio antolatzaileari jakinarazi beharko zaio behar besteko aurrerapenaz, ezinbesteko kausa izan ezik azken momentuan, haiek nahikoa egiaztatu beharko baitira. Era berean, eragindako erakundeari jakinarazi beharko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Partida batera justifikaziorik gabe ez agertzea erakundearen arau hauste larritzat jotzen da eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan, eta, aurrekoez gain, aipatutako dekretuaren 17. artikuluan ezarritako edozein zehapen ezarri ahal izango da.

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzera agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez-agertzea: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da.
- b) Bigarren ez-agertzea txapelketa berean: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da eta sailkapen orokorrean hiru puntu kenduko zaizkio.
- c) Taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Partida jokatzen hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batez agertzen den taldea ez-agertutzat joko da, eta dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio.

21. ZELAIA ESKATZEA ETA AUTOBUSA

Partidak jokatzeke xedez, Arabako Futbol Federazioari zelaiak erabiltzea eskatu behar zaionean, gutxienez hamabost (15) egun lehenago bidali beharko zaio eskaera. Ez da ordutegi aldaketarik onartuko epea igaro ondoren, justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Autobus bat kontratatzeke adina pertsona badago (gutxienez, 10 lagun), bat jarriko da haien eskueran.

Partida egunaren aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehen egingo zaio Arabako Foru Aldundiari eskaera.

22. PARTIDEN ORDUTEGIA

Lehiaketa eguna larunbata izango da, eta partida hasteko azken ordua 9:00etatik 13:30era bitartekoa izango da. **Salbuespen gisa, haurren kategoria horretarako bakarrik, aurreko ordu tartean partidetarako instalaziorik ez dagoenez, aukera ematen da**



larunbatetan 16:00etatik 17:00etara bitartean hasteko.

Beste ordutegi edo asteko egun batzuk baimendu ahal izango dira, parte hartzen duten erakundeak ados badaude eta federazioaren oniritzia badago.

Taldeetako bat beste herri batera joan behar bada partida jokatzeko, hura goizeko 10:30etik 12:30era arteko orduren batean jokatu da. Salbuespen gisa, eta soilik kirol instalazio batean ordu tarte hori osorik betetzen bada talde desplazatuak dituzten partidekin, partidak 9:30 - 13:00 bitartean jokatu ahal izango dira, benjamin kategorian izan ezik. Salbuespena aplikatzeko ez da federazioaren edo Arabako Foru Aldundiaren baimenik behar, baina diziplina neurriak aplikatu ahal izango dira hura behar bezala aplikatzen ez bada.

Halaber, larunbat arratsaldeetan partidak programatu behar direnean, 16:30etik 17:00etara egingo dira joan-etorriak herrien artean.

Etxean jokatzen duen taldeak, nahitaez, partida jokatu den orduaren eta lekuaren berri eman behar dio Federazioari, partida hori jokatu aurreko asteko ostiraleko 12:00ak baino lehen. Partida jokatzeko ordua eta lekua jakinarazten ez bada, etxean jokatzen duen taldeari partida galdutzat emango zaio, zigor modura. Udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietako partidetan, eta udaleko kirol instalazioen eskatzaileei jakinaraziko zaie araudi hori.

23. PARTIDEN ORDUA ALDATZEA

Orduz aldatu nahi duen taldeak jakinarazi behar dio nahitaez Federazioari. Hala ere, ez da orduz aldatuko talde aurkariaren adostasunik gabe. Gutxienez 48 ordu lehenago egin behar zaio jakinarazpena talde aurkariari. Talde aurkariaren adostasunik izan ezean, eta partida beste ordu horretan jokatzekotan, partida galdutzat emango zaio ordua aldatu zuen taldeari (udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietan).

24. INSTALAZIOAK

Partidak jokatzen diren kirol instalazioetan aldagelak egon behar dira.

Gainera, trans kirolariei bermatu behar zaie askatasunez sentitzen duten sexuari edo generoari dagozkion instalazioak (komunak, aldagelak eta abar) erabili ahal izatea.

25. LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketen egutegia ezinbesteko arrazoiengatik baino ez da aldatu ahal izango (Aldundiak baimenduta). Edozein arrazoiengatik (elkarrekin bizitzeko aldiak, ikasketa amaierako bidaia, eta abar) beharrezkoa bada partidaren bat geroratzea, talde aurkaria ados dagoela eta partida zein egun eta orduan jokatu den aurkeztu behar da.

Edozein egoeratan, Arabako FUTBOL Federazioari idatziz eskatu beharko zaio, gutxienez HAMABOST EGUN lehenago.

Partidak bertan behera geratzen badira ezinbesteko arrazoiengatik, inplikaturako taldeek Federazioari 48 ordu baino lehenago jakinaraziko diote data berria; ondoren, lehiaketa batzordeak data berria onartzen duen ala ez esan beharko du. Edozelan ere, partida bertan behera utzi den egunetik 15 egun igaro baino lehen jokatu beharko da. Jaiegunik ez badago, lanegunetan programatu beharko dira.

26. - HARMAILETAN ERRESPECTUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

Eskola-kirola hezkuntza-, bizikidetzatza- eta errespetu-iturri izan dadin, "[Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko jarduera-protokoloa](#)" aplikatuko da lehiaketa guztietan.

27. - FEDERAZIOKO ORDEZKARIAK

Arabako Futbol Federazioak, araudi hau eta eskola-kirolaren helburuak betetzen direla egiaztatzeko, edo egoki deritzonean, bere ekimenez izendatu ahal izango ditu federazioko ordezkariak.

Federazioaren ordezkaria partida hasteko ezarritako ordu ofiziala baino ordu erdi lehenago aurkeztuko da joko-zelaian, eta arbitraje-taldearen eta taldeetako entrenatzaileen aurrean egiaztatuko da. Partida osoan zehar egon beharko du joko-esparruan, eta, behar izanez gero, ondoren.

Federazioko ordezkariaren eginkizunak izango dira:

- a) Futboleko eta areto futboleko modalitateen berariazko araudia betetzen dutela egiaztatzea, bai parte hartzen duten taldeek, bai arbitraje-taldeak.
- b) "Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa" betetzen dela egiaztatzea. Beharrezkoa izanez gero, arbitroari protokoloa aplikatzeko eskatuz esku hartu ahal izango du.
- c) Lehikaetaren aurretik, bitartean eta ondoren erregistratutako gorabeherei buruzko txostena egitea. Txostena Arabako Futbol Federazioaren esku egongo da eta, hala badagokio, Arabako Federazioaren Diziiplina Batzordean, partida jokatu eta hurrengo 48 orduetan.

Federazioko ordezkariak ezingo ditu arbitroen eginkizunak oztopatu, artikuluko honetako b) idatz-zatian aipatutako protokoloa aplikatzea eskatu behar ez badie behintzat.

28. DIZIPLINA ARAUTEGIA

Eskola Kiroleko Lehiaketen Diziiplina Araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA aplikatuko da.



Erakundeei zehapena ezarri ahal izango zaie lotutako pertsona fisiko batek diziplina araudiko arauen bat hausten duenean. Honako hauek dira erakundeei lotutako pertsona fisikoak: erakundearekin eskola lizentzia duten pertsonak edo haien senideak, erakundearekin harreman juridikoren bat (lanekoa, boluntariorzakoa edo beste izaera batekoa) duten pertsonak, erakundeko organoetako kideak, erakundeko bazkideak eta erakundearekin zalantzarik gabe lotu daitezkeen ikusleak. Zehapena hauetako bat izango da: puntuak galtzea, partida galtzea, sailkapeneko postua galtzea edo eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUaren 17. artikuluan ezartzen den besteren bat.

Aktan jaso ez bada ere, arbitro taldeak eta lehiaketan parte hartzen duen edozein erakunde lehiaketan izandako gorabehereri buruzko txosten bana bidali ahal izango diote erakunde laguntzaileari, aktak entregatzeko ezarritako epea baino lehen. Federazioak arbitro taldeak egin ditzakeen txostenak edo akta luzapenak bidali beharko dizkie lehiaketan parte hartu duten erakundeei.

Pilatu egingo dira falta zehagarriak; alegia, ez da futbolaren eta areto futbolaren artean bereiziko, epaileen zigor espedienteen izapidetzean atzerapen edo luzapenik izan ez dadin.

Diziplina arloan, eta bat etorrituz uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoarekin, FAF-AFFren Kirol Diziplinako Batzordeak FVF-EFFren Diziplina Araubidearen Arautegia aplikatuko du.

ARAUTEGI HONETAN JASOTZEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK IFAB-AREN JOKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO DIRA.



11KO FUTBOLEKO ARAUTEGIAREN LABURPEN TAULA

Joko denbora	Haurrak: 2 zati, 35na minutukoak.
Denboraren kontrola	Denbora jarraitua.
Baloia	Haurren kategoria: zirkunferentzia: 62 eta 66 cm bitartekoa eta pisua 340 eta 390 g bitartekoa. (f4 mod.)
Aldaketak	Gehienez ere 7 aldaketa Aktan jasotako GUZTIEK jokatu beharko dute partida amaitu aurreko azken hamar (10) minutuak baino lehenago.
Txartel horia	Jokalaria 2 minutuz kanporatzea
Txartel gorria	Jokalaria 5 minutuz kanporatzea eta, gero, haren ordez beste bat ateratzea. Azken 10 minutuan kanporatu bada, haren ordez ezin da beste inor atera.
Atezainari baloia uztea	Jokalari batek baloia bere atezainari eman eta hark arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori jaurtiketa libre ez-zuzenarekin zigortuko da.
Markagailua	Partidan aldea 8 golekoa edo gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeak hala eskatzen badu.